


ARABAKO LAUTADAKO MUINOAK

KOKALEKUA



Arabako Lautadan, Dulantziko Lautadan, Aguraingo Lautadan eta Gasteizko Lautadan dauden haitz eta muinoen multzoa, paisaiaren kalitatea eta hauskortasuna oso handiarekin

Argomaniz, Henayo, Mezikia, Ordoñana, Luzuriaga, Arzubiaga, Gobeo muinoak, San Bizente elizako muinoak eta Santa Luzia ermita, Jundizko haitza eta Lukoko gaina dira.

Azalera: 1752 ha.

Udalerriak:

Elburgo/Burgelu	27,00%
Alegria-Dulantzi	25,16%
Vitoria-Gasteiz	22,21%
Iruraiz-Gauna	9,92%
Arratzua-Ubarrundia	5,69%
Barrundia	3,36%
San Millán/Donemiliaga	2,91%
Iruña Oka/Iruña de Oca	2,65%
Legutio	1,10%



Ikusmen irizpideen arabera mugatu dira, eta, aldi berean, ezaugarri morfologikoek baldintzatzen dituzte, paisaiaren hauskortasun oso handia baitute. Identifikazioan, garrantzi handia izan dute ondare eta nortasun balioek.

PIBEaren zati bat Paisaia Bikain gisa katalogatuta dago Arabako Lurralde Historikoko Paisaia Berezi eta Bikainen Katalogoan (*Arabako Lautadako Zerreak*). Katalogo hori esku-hartze unitatea (PIBE) identifikatzeko oinarria da, eta kontserbatzeko merezimendua duten beste muino batzuen zerrenda batek osatzen du; horien artean, Jundizko muinoa nabarmentzen da.

ARABAKO LAUTADAKO MUINOAK

P1

DEFINIZIOA ETA IZAERA

Muino margosoen multzoa, Lautadako zelai landuan kontrastatzen duten gorabehera geografikoak, bertako biztanleen ikusmen kontenplatiboko eta eguneroko ikuspegiaren erreferentzia bisuala. Talaia gisa zuen kokaleku estrategikoari esker, ikusmen nagusiakin, defentsa-elementuak ezarri ziren; horien artean, Henayoko Gaztelu gotortua nabarmentzen da, izen bereko muinoan, edo erlijiosoa, hala nola Estibalizko Andre Mariaren Santutegia, San Bizente eliza eta Santa Luzia ermita. Azken horiek, azken finean, identitate-izaera handia ematen diete.

Gainera, morfologiak luberritzea eragotzi zuen, eta landaretza naturaleko uharte gisa eratu ziren ingurune antropizatu handi batean.



Ahuleziak: Ikusmen-irigarritasun handiko paisaia da, eta aldatzeak EFren multzoaren izaera aldatuko luke.

Mehatxuak: Inpaktu negatiboa sortzen duen edozein jarduera mota instalatzea (azpiegitura energetikoak, telekomunikaziokoak edo bestelakoak).

Indarguneak: Paisaia Berezia, (*Arabako Lautadako muinoak*, Arabako Lautadako hariztiak) eta Natura 2000 Sareko KBE gisa identifikatuta dago.

Aukerak: Araba Erdialdeko LPPak berrikusteak indarrean dauden babes-eremuak berrikustea erraztu dezake.

PKH zuzendaria: paisaiaren babesa

- Naturaltasunean edo paisaiaren kalitatean aldaketa eragiten duen edozein eraldaketatik babesteko irudipean sailkatzea gomendatzen da, lehendik ezarritako erabilerak mantenduz eta inpaktu bisualak sortzen dituzten jarduerak edo azpiegiturak garatzea eragotziz.
- Baimendutako jarduketan baimenak (kontserbazioa eta hobekuntza, azpiegitura turistikoak, abeltzaintza estentsiboa) paisaia-inpakturik ez eragiteko baldintzapean jartzea, bai diseinuagatik beragatik, bai paisaian integratzeko neurri egokiak hartzeagatik. Eraiki nahi den lurraldeko kanon tradizionalak beteko dituen eraikuntzaren diseinua, tipologia tradizionalei jarraituz, bolumetrietan, materialetan, akaberetan eta elementu arkitektonikoen antolamenduan.
- Paisaiaren berezitasunarekin bat ez datozen elementuak instalatzeko baimenik ez ematea.
- Bertan dauden elementuak ezabatzeko baimenik ez ematea, justifikatutako salbuespezezko kasuetan izan ezik.
- Paisaiaren egungo dinamika aldatzen duten jarduerak ez baimentzea.